

Kidegoa: 2. Hezkuntza	Espezialitatea: INFORMATIKA (Lanbide Heziketa)	Hizkuntza: EUSKERA
BIGARREN PROBAREN A ZATIA BALORATZEKO IRIZPIDEAK		PUNTUAZIOAK / GEHIENEO MURRIZKETAK
Ez baditu betetzen formazko betebeharrak: "Programazio didaktikoak gehienez ere 50 orrialde izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimitu gabe. Grafiko, taula, orri-oin eta goiburuetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Azala nahi bezala diseina daiteke. Gutxienez ere 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan".		Probaren A zatiaren balioaren %50eko murrizketa
Gaiaren antolaketa		2 puntu
Programazioaren aurkezpena eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabera testuingurua ematea. Lanbide Heziketaren kasuan, espezialitatearekin lotutako ikasgai edo lanbide-modulu bat aipatzen da, edo, hala eskatzen duten planteamendu metodologikoak erabiliz gero, hainbat ikasgai edo lanbide-modulu aipatzen dira, eta horien artean sartzen da helburu duen espezialitatearekin lotutakoa.		1
Ongi planteatuta egotea programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziarioaren logika.		1
Eduki teknikoa		2 puntu
Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu mailaren arabera.		1
Programazioak honako hauek zehazten ditu: ikaskuntzaren helburuak eta emaitzak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, ebaluazioarekin duten lotura, zer neurritan laguntzen dion hezkuntza-mailari dagozkion gaitasunak eta zikloko gaitasun orokorra eskuratzen eta, orobat, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak eta gaitasun-unitateen gaitasunak eta konpetentziak, eta, hala badagokio, lanbide-kualifikazioak.		1
Eduki didaktikoa		6 puntu
Ikasmailarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.		1,5
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.		1,5
Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleentzako neurriak.		1
Programazioa modu argian azaltzea.		2
Zuzentasun ortografikoa (murrizketa)		2 puntu
Ortografia akatsak.		
Gramatika akatsak.		
<p>Programazio Didaktikoa izangaiak egin behar duenez, eta horrek lan pertsonala eta indibiduala eskatzen duenez, programazio plagiatuak aurkezteak edo izangai batzuek Programazio Didaktiko bera aurkezteak esan nahi du hori egiten duten izangaiak zero puntuko kalifikazioa lortu behar dutela probaren zati honetan.</p>		